

ELIKADURA JASANGARRIA

EBko 27 herrialdeetan kontsumitutako elikagaien laurdena kanpotik dator

📁 OSASUNA / GAUR8

Planetaren osasuna eta giza osasuna oso lotuta daude; gure elikatzeko moduak eragin handia du gure osasunean, eta baita ingurumenean ere. Azken hamarkadetan gaitasun ez-kutsakorrak ugartu egin dira, hala nola minbizia edo diabetesa –dietarekin lotura estua dute–, eta elikagai-sistemak berotegi-efektuko gasen heren baten erantzule dira. Hori dela eta, nazioarteko hainbat erakunde lanean ari dira herritarren eredu dietetikoak aldatu nahian; dietak osasungarriago eta, aldi berean, jasangarriago bihurtzeko.

Bide horretan, Global Footprint Network-eko iraunkortasunean espezializatutako zientzialariek koordinatutako ikerketa berri batek –elikadura-sistemetan adituekin lankidetzan– honako ondorioa jarri du mahai gainean: Elikadura da Europako Batasuneko 27 herrialdeen neurrigabeko aztarna ekologikoaren erantzule nagusia. Erosle europarrei elikagaiak helarazteko bideek eta horiek kontsumitzeko moduek aztar-na ekologikoaren parte handiena osatzen dute, %30 inguru.

“Nature Food” aldizkarian argitaratutako albisteak bildu ditu ikerketaren ondorio nagusiak, “EU-27 Ecological Footprint was primarily driven by food consumption and exceeded regional biocapacity from 2004 to 2014”, izenburuarekin. Hala, ikerketak garbi utzi du elikadura-horniduraren katearen etapa bakoitzerako nahi-taez bete beharreko politikak diseinatu eta ezarri behar direla, Europako Itun Berdea eta “Farm to Fork” estrategia (baserritik mahaira) lortzeko.

«Europarrek beren aukeren gainetik jaten dute inportazioei, karbono dioxidoaren emisioei eta lurzoruaren eta uraren erabilerari dagokienez». Esaldi horrek ondo laburbiltzen du ikerketa batek mahai gainean jarritakoa. Planetaren osasuna eta giza osasuna lotuta daude, eta uneotan dietak ez dira egokienak.



Hasieratik kontsumitu arte, elikadura-sistemek presio desberdinak eragiten dituzte ekosistemetan; adibidez, lurzoruaren erabilera eta erabilera aldatzea, ura agortzea eta kutsatzea, biodibertsitatea galtzea eta berotegi-efektuko gasak isurtzea.

«Europarrek beren aukeren gainetik jaten dute inportazioei, karbono dioxidoaren emisioei eta lurzoruaren eta uraren erabilerari dagokienez», azaldu du Roberta Sonninok, Ingurumen eta Iraunkortasunerako Zentroko kide eta Surreyko Unibertsitateko Iraunkortasunerako Institutuko kideak. «Horniduran edo eskarian esku hartzeko joerak ez du funtzionatzen. Ikuspegi sistematikoa behar dugu horiei elkarrekin heltzeko, merkataritza-politikak aztertzeaz gain. Ikuspegi sakabanatua hartu beharrean, gobernu nazionalek ebidentzietan oinarritutako elikadura-politika holistikoak inplementatu behar dituzte, hain zuzen ere ikerketa honetan jasotako ebidentzia-motetan oinarritutakoak», gaineratu du.

PROTEINA ITURRI BERRIAK

Anna Bach Faig UOCeko iker-tzaileak kontsumo-joerak eta ir-tenbide posibleak aztertu ditu ikerketa honetarako, eta EBko 27 herrialdeentzat elikagai-sistema iraunkorrago baterako ekintzak proposatu ditu. «Emitzek proteinak haragitik eta esnekietatik haratago lortzearen garrantzia indartzen dute. Horrez gain, landareetan aberatsak diren eredu dietetikoaren alde egin behar da eta kantitateak ere zaindu egin behar dira», esan du ikertzaileak.

Aurreko ikerketa batzuekin bat eginez, azken ikerketa honek erakusten du animalia-produktuak –haragia, arraina eta,



maila baxuagoan, esnekiak—oso intentsiboak direla baliabideetan, landare-jatorriko elikagaiekin alderatuta. Hala ere, landare-jatorriko elikagaiak dira, barazkiak adibidez, EBko 27 herrialdeetatik soilik 8ren dietaren elementu nagusia.

«Beharrezko ikusten da landare-jatorriko proteinen iturriak handitzea, adibidez leka-leak eta fruitu lehorrak. Era berean, nutrizio beharrak eta ingurumenaren zaintza integratzen dituzten ikuspegiak ere beharrezkoak dira. Elikagai jasangarri eta osasungarrietarako sarbide nahikoa bermatzeko politikak sustatu behar dira, kontratazio publikotik eta eskola-curriculumetatik abiatuta, adibidez», proposatu du Bach Faigek.

Adituek beharrezko ikusten dute landare-jatorriko proteinen iturriak handitzea, adibidez leka-leak eta fruitu lehorrak.

GETTY IMAGES

ESKARIA ETA GAITASUNA

Gizateriaren baliabide biologikoen eta zerbitzu ekosistemikoen eskariak nabarmen gainditzen du planetak baliabide horiek birsortzeko eta karbono dioxidoaren emisioak biltze gaitasuna. Era berean, eta ikerketan aztertutako datuen arabera, Europako Batasuneko (EB) egoi-

Gizateriaren baliabide biologikoen eta zerbitzu ekosistemikoen eskariak nabarmen gainditzen du planetaren baliabide horiek birsortzeko eta karbono dioxido emisioak biltzeko gaitasuna

Europako Batasuneko (EB) egoiliarren aztarna ekologikoak etengabe gainditzen du eskualdearen biogaitasuna, eta, beraz, kanpo-baliabideen mende dago

liarren aztarna ekologikoak etengabe gainditzen du eskualdearen biogaitasuna, eta, beraz, kanpo-baliabideen mende dago, EBko bizimoduaren eskakizunak betetzeko.

«EBko Itun Berdearen eta 'Farm to Fork' estrategiaren arabera, Batasuna munduko liderra da elikadura-sistemarako eta gizarte iraunkorra-goetarako trantsizioan. Hala ere, EB-27ko egoiliarren dieta mantentzeko behar den biogaitasunaren ia %25 EBkoak ez diren herrialdeetatik dator. Gure analisiak iradokitzen du 'Farm to Fork' estrategiaren helburuak nekazaritza-sektorean aplikatzea ez dela nahikoa izango EBren deskarbonizazio-helburuak betetzeko, ingurumen-inpaktua EBkoak

ez diren herrialdeetara eramaten baita», nabarmendu du Alessandro Gallik, ikerketaren koordinatzaile eta Global Footprint Network-eko Mediterraneoko, Ekialde Ertaineko eta Afrika Iparraldeko eskualdeetako zuzendariak.

«Litekeena da, berez, hornidura-aldaketak ez izatea nahikoa EB-27ko elikadura-sistema jasangarria izateko, 'Farm to Fork' estrategiak deskribatzen duen moduan. Elikagaietan oinarritutako gomendio dietetiko nazionaletan nutrizio eta jasangarritasun ikuspegiak sartzeak aldaketak eragin ditzake elikagaien kontsumoan eta gizakien eta planetaren osasunerako onuragarriak diren jorkabideetan», ondorioztatu du te proiektuaren arduradunak.